

## Enfoka-Trends 2020ko urtarrila

### “ MERKATARITZAREN URTEURRENAK”




Black Friday eguna Esker-emate egunaren ondorengo lehen ostiralean ospatzen da (azaroko azken ostegunean). Bere jatorriari buruzko teoria ugari egon arren, sinesgarriena Filadelfia hirian kokatzen du, non berrogeita hamarreko hamarkadan, poliziek Black Friday esaten zioten, Gabonetako erosketak egiten hasteko ehunka auto (garai hartan gehienak beltz kolorekoak ziren, ingelesez, black) kalean biltzen ziren egunari. Kaleak beltzez tindatzen zituen eta dendak betetzen zituen zirkulazio kaosari, alegia.

Baina 2003ra arte ez zen sortu deskontu handiak eskaintzen hasteko ekimena, Sears eta Walmart saltoki handi estatubatuarrak izan ziren horretan lehenak. Hala ere, 2011ra arte ez ziren saltoki gehienak batu. 2012an iritsi zen Espainiara Media Markten eskutik, eta 2013an merkataritzako beste saltoki erraldoi batzuk gehitu ziren, El Corte Ingles edo Amazon, adibidez. Gaur egun, merkataritza establezimendu ehuneko handi batean egiten da.

Aurreikuspenen arabera, 1.600 milioi euroko negozio-bolumena izango du Espainian. Nahiz eta Black Friday 2019ko diru-sarreraren datu zehatzik ez izan, badakigu salmentek % 18 egin zutela gora, Criteoren balorazioaren arabera.

Konpainia horrek adierazi duenez, igoera hori smartphonen erabilera biziak ekarri du, produktuak kontsultatzeko, bilatzeko eta erosteko. Datu hori bat dator Internet bidez gero eta gehiago erosteko dugun goranzko joerarekin; espainiarren % 62k aukera horren alde egiten dute, eta mugikorra da biderik gogokoena. Espainian, adibidez, % 38,8 igo dira telefono bidezko salmentak Black Friday 2019an. Tableten salmenta, aldiz, % 12,6 egin du behera.

Datu onak ere nabaritu ziren retail fisikoan. Johnson Controlsen jabetzakoa den ShopperTrak (Sensormatic Solutions) enpresaren arabera, denda fisikoek % 8,9ko igoera izan zuten Black Friday 2019an.

Black Friday saltoki handien eguna dela dirudien arren, enpresa txiki eta ertainen % 40 edo % 50 ere batuko dira, nahiz eta “gogoz kontra” egin gainerakoek behartuta, Espainiako Merkataritza Konfederazioko presidentek azaldu duenez. Egia esan, saltoki askok kezka adierazi dute kontsumo-bolada honen aurrean, ezin baitute baldintza berdinetan borrokatu.

Bestalde, Cyber Monday eguna ere badaukagu, Black Fridayren ondorengo lehen astelehenean, 2005ean sortutakoa. Garai hartan, merkataritza elektronikoa ez zen oso ezaguna, eta online dendek erabiltzaileak erakartzeko aukera ikusi zuten eskaintzen eta promozioen bidez. Honako ezaugarri hauek zituen; online kanala bakarrik erabiltzea, eta teknologia, bidaia eta etxetresna elektrikoek eskaintzetan arreta jartzea.

Kontsumitzaileek, ordea, enpresa txiki eta ertainen aldeko apustua egiten dute oraindik. Kantarrek eBay-rako egindako ikerketa baten arabera, bi espainiarretik batek uste du garrantzitsua dela urteko sasoi honetan negozio txikietan erostea.

Ildo berean jaio da Small Business Saturday eguna, Estatu Batuetan Black Fridayren eta Cyber Mondayren aurretik ospatzen dena. Egun berezia da, herriko saltoki txikiei babesa emateko eguna. Enpresa txiki horiek beren komunitateengatik egiten duten guztia eskertzeko antolatzen da.

Small Business Saturday egunaren lehen edizioa 2010ean izan zen. American Expressek babestu zuen, National Trust for Historic Preservation irabazi asmorik gabeko erakundearekin eta Bostongo alkatearekin elkarlanean. Orduetik Estatu Batuak osora zabaldu da, eta baita ere, beste herrialdeetara, Erresuma Batura, adibidez. #SmallBusinessSaturdayren hashtag-ak denda txikiak sustatzen eta ezagutzera ematen jarraitzen du.

## BIBLIOGRAFÍA

- Laureano Turienzo (2020). Small Business Saturday. 2020ko urtarrilaren 22an hemendik berreskuratua <https://retailnewstrends.me/small-business-saturday/>
- Marina Prats (2019). La verdadera historia del Black Friday es esta (y no la que te está llegando por WhatsApp). 2020ko urtarrilaren 22an hemendik berreskuratua [https://www.huffingtonpost.es/entry/black-friday-origen-historia-eeuu\\_es\\_5de0d17ee4b0913e6f7c8d63](https://www.huffingtonpost.es/entry/black-friday-origen-historia-eeuu_es_5de0d17ee4b0913e6f7c8d63)
- La Vanguardia (2019). ¿Por qué se llama 'black friday'? ¿De dónde viene? 2020ko urtarrilaren 22an hemendik berreskuratua <https://www.lavanguardia.com/economia/20191129/471929899255/black-friday-2019-ofertas-descuentos-origen-significado-historia.html>
- Verónica Cabezudo (2019). Black Friday 2019 en España: ¿cuánto negocio se hizo? 2020ko urtarrilaren 22an hemendik berreskuratua <https://www.muycanal.com/2019/12/03/black-friday-2019-espana-negocio>
- Josep García (2019). Las dos caras del Black Friday. 2020ko urtarrilaren 22an hemendik berreskuratua <https://www.elperiodico.com/es/economia/20191128/las-dos-caras-del-black-friday-7755171>
- Janire Manzanas (2019). ¿Qué es el Cyber Monday? Origen y evolución hasta la actualidad. 2020ko urtarrilaren 22an hemendik berreskuratua <https://okdiario.com/curiosidades/que-cyber-monday-origen-evolucion-hasta-actualidad-4882950>
- Janire Manzanas (2019). Black Friday y Cyber Monday: ¿Cuál es mejor? 2020ko urtarrilaren 22an hemendik berreskuratua <https://okdiario.com/noticias/black-friday-cyber-monday-cual-mejor-4863038>
- Cuando pasa (2019). Small Business Saturday 2019. 2020ko urtarrilaren 22an hemendik berreskuratua <https://www.cuandopasa.com/index.php?v=v99362b>

## LOTURIKO WEBAK

- Small Business Saturday UK: <https://smallbusinesssaturdayuk.com/>
- Shop Small: <https://www.americanexpress.com/us/small-business/shop-small/>

## LOTURIKO BIDEOAK

- #CifraDelDía: 30 millones de pequeños negocios en el Small Business Saturday: <https://cnnespanol.cnn.com/video/cifra-del-dia-pequenos-negocios-small-business-saturday-sba-administracion-de-pequenos-negocios-compradores-cadenas-minoristas-portafolio-cnne/>